BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1790

EBAZPENA, 2018ko martxoaren 26koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, jakitera ematen duena 2018ko aurrekontu orokorretan zenbat diru izendatu den IVAPentzat honako helburu honetarako: udal-administrazioei diru-laguntzak ematea, haien zerbitzuko langileak, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan egonik euskara ikastaroetara joaten direnak, ordezteko. Era berean, honen bidez, euskara-ikastaroetara joaten diren langileak ordezteko diru-laguntzen moduluen kopuruak eguneratzen dira.

Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduan arautu zen, alde batetik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAPek) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza prestakuntzako zerbitzua eta, bestetik, ezarri ziren euskara ikastaroetara doazen udal langileak ordezteko diru-laguntzen arauak. Aipatutako diru-laguntzak jasota daude indarrean dagoen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko diru-laguntzen plan estrategikoan.

Aipatutako aginduaren bigarren kapituluan, euskara ikastaroetara joaten diren langileak ordezteko diru-laguntzak arautzen dira, eta 7.2 artikuluak ezartzen du IVAPeko zuzendariaren ebazpen baten bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko dela aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren hasieran diru-laguntzak emateko izendatutako diru kopurua.

Halaber, ordezpenak egiteko diru-laguntzen modulu horien eguneratzea bat dator 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan aurreko urtean Kontsumoko Prezioen Indizeak izandako igoera bera gehituko zaie indarrean dauden moduluei.

Ikusirik aurreko urteko Kontsumoko Prezioen Indizeak % 1,1 egin duela gora, eta egin beharreko kalkuluak egin ondoren,

Hori guztia kontuan izanik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakitera ematea 2018ko aurrekontu orokorretan zenbat diru izendatu den IVAPentzat honako helburu honetarako: udal-administrazioei diru-laguntzak ematea, haien zerbitzuko langileak, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan egonik partzialki edo guztiz liberatuta euskara ikastaroetara hizkuntza eskakizuna eskuratu arte joaten direnak, ordezteak dakarren kostua finantzatzeko. Honako hauek dira izendatutako diru kopuruak:

47140 Programa, «Euskalduntze eta hizkuntza normalkuntza»; kontzeptuak 422.01-1 «Udal langileak ordezteko diru-laguntzak», 143.800 euro, eta 422.11 -1 «Mankomunitateetako langileak ordezteko diru-laguntzak», 5.000 euro. Guztira: 148.800 euro.

Bigarrena.– Euskara ikastaroetara doazen langileak ordezteko, honako diru-laguntza modulu hauek ezartzea:

– Asteko 25 ikastorduko ikastaroa edo barnetegiko ikastaroa: gehienez ere 2.097,06 euro hilabeteko.

– Asteko 15 ikastorduko ikastaroa: gehienez ere 784,08 euro hilabeteko.

– Asteko 10 ikastorduko ikastaroa: gehienez ere 519,03 euro hilabeteko.

– Asteko 8 ikastorduko ikastaroa: gehienez ere 417,93 euro hilabeteko.

2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, horiek ez bezalako ordu-moduluetarako ere, diru-laguntzen kalkulu proportzionala egingo da. Izan ere, agindu horren bosgarren artikuluan ezarritakoari jarraituz IVAPek egindako deialdietan onartu daitezke bestelako ordu-modulu horiek.

Mila biztanletik beherako lurralde esparruetako administrazioetako idazkari-kontuhartzailearen lanpostuko titularra ordezteko diru-laguntza modulua hileko 3.144,99 euro arte gehitu daiteke, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 26a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.